



Banda poema liburuaren egilea, Jokin Erkoreka, Donostiako udal liburutegian egindako aurkezpen agerraldian. GORKA RUBIO/FOKU

Hitz bakoitzagatik borrokan

Jokin Erkorekak 'Banda' izeneko olerki liburua kaleratu du, Erein argitaletxearekin • Haren lehen obra da, eta iazko Blas de Otero - Bilbo Uria poesia lehiaketa irabazi ostean iritsi da

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-20:00
www.santelmomuseoa.eus

Museora bisita laburra

10:30 (eus) + 18:00 (cas)

Doan. Lekua erreserbatu behar da.

HITZALDIA
Argazki liburuak
Renascence.
Rocio Bueno
12:00 (cas)



STM

San Telmo Museoa

Alex Uriarte Atxikallende

Donostia

Musikari eta idazle izaerak uztartu ditu Jokin Erkorekak (Bermeo, Bizkaia, 1991) kaleratu berri duen *Banda* olerki liburuan. Erkorekaren *opera prima* da, eta Nazioarteko XIII. Blas de Otero - Bilbo Uria poesia lehiaketa irabazi zuen iaz. Atzo, Donostiako udal liburutegian aurkeztu zuen, Erein argitaletxeko Inazio Mujika editorearekin batera.

Orain arte, olerkigintzarekin «oso hertsiki lotuta» ez egonagatik ere, Erkorekak argitu du «irakurzaletasunarekiko pasioagatik» idatzi duela, eta «zinez pozik» agertu da erdietsitako emaitzarekin. Haxotz musika taldearekin estudioko bost album kaleratu ditu, baina literatur lan berriarekin «orain arte ukitu ga-

beko kristalezko sabai bat» apurtu du Erkorekak. Xede horren atezuan, adierazi duenez, «edozeinek irakurtzeko moduko artefaktua» ondu du, «masentzat diseinatutakoa ez den arren».

Banda bost atalek osatzen dute: *Goiza*, *Eguerdia*, *Arratsa*, *Iluntzea* eta *Gaua*. Idazlearen musikari senak, baina, atal bakoitza interludioz lotzera gidatu du. Erkorekak *Banda* zatiz zati xehatu du aurkezpenean.

Lehendabiziko atala «mundu ikuspegia erakusteko barne borroka» gisa definitu du; bigarrenan, «naturari» erreparatu dio; hirugarrenean, berriz, «etxeari»; laugarren olerki multzoa «kezka pertsonalena» da, hala nola «transformazioa, zahartzea, gatzak esateko presa eta berehalakotasuna»; azkenak, oster, «epilogo itxura» du.

Interludio bakoitzean, Erkorekak erreferentziatzen dituen autoreen obretako aipuak daude: T. S. Elioten *The Waste Land*-ekoa, Kurt Vonneguten *Slaughterhouse-five*-ekoa, Albert Camus-en *Le Mythe de Sisyphe*-ekoa, David Foster Wallace-n *This is water* hitzaldikoa eta Gabriel Arestiren *Olerkaria* liburukoa. Idazle horiek hautatzearen arrazoia «bizitzarekiko ikuspegia irudi ederrekin kanporatzeko gaitasuna» da.

Leku berezia Arestiri

Aresti da, hain zuzen ere, Erkorekaren inspirazio literarioerik esanguratsuena: «Bai bere estilo partikularragatik, bai euskararen alde egindako guztiagatik, asko miresten dudana egilea da». Elhuyar fundazioa eskertzeko tartea ere hartu du, «Arestik, bere garaian, eduki ez zituen baliabideak izan

ditut eskuragarri; batik bat, hiztegia».

Mujika editoreak, obra aurkezterakoan, liburuak atzealdean dartzan Igor Estankonaren hitzertara jo du: «Liburu fina eta kulturala da, baita gordina eta sentibera ere; asko irakurri dutenen lanak izan ohi dira horrelakoak». Hura irakurtzea musika emanaldi batera joatearekin alderatu du: «Publikoak, amaieran, *beste bat* eskatuko du, alegia, beste poema bat».



Nire ustez, euskaraz poesia idazteak, nolabait, badu zezozko erresistentzia eta maitasun ariketatik»

Jokin Erkoreka

Idazlea eta musikaria

Aurkezpen ekitaldian, Erkorekak *Heriotza V izeneko* olerkia irakurtzeko parada izan du; oraintsu zendutako Inigo Perez Gervasioren omenez idatzi zuen poema hori, eta Erkorekak aitortu du «sakonki hunkitzen duten leerroak» direla.

Sormen prozesuaz itaunduta, argitu du olerkiak egiteko bideak «gutxi samar» duela amankomunean abestiak egiteko metodoarekin. Izan ere, kantugintzan diharduenean, oinarri instrumentala eraikitzen du lehenengo, ondoren hitzak hartzeko; idazle lanetan dabilenean, ordea, kontzeptuetatik abiatzen da: «Olerkigintzan, azaleratu nahi ditudan kontzeptuek betetzen dute *riff* edo melodiaren egitekoa».

Bestalde, aitortu du liburuko testu batzuek mendebaldeko hizkeraren kutsua agertzen duten zenbait hitz dituztela: «Bizitza osoan bizkaieraren eta euskara batuaren inguruan mugitu izan naiz, bizi izan naizen toki ezberdinetan; beraz, bietatik edaten dut». Alde horretatik, «hitz bakoitzagatik» borrokatu duela adierazi du.

Letragintzaz mintzatzean, Mikel Laboa, Gorka Urbizu eta Touche Amore taldeko Jeremy Bolm laudatu ditu: «Musikariak dira, ni bezala, baina haien idazteko moldeak badu zerbait bereizgarria; oso bereziak dira, eta izugarri inspiratzen naute».

Gustave Flauberten *Le mot juste* aipuaz ere gogoratu da: «Sentitzen nuena azaleratzeko bidean, adierazpide perfektuen bila ibill naiz, zorroztasunez. Nire ustez, euskaraz poesia idazteak, nolabait, badu zezozko erresistentzia eta maitasun ariketatik».